SERIEAREN KODEA	0186

I.- IDENTIFIKAZIOA

1.1. Seriearen izena

1.1.1	Artxibo-zerbitzuko erreferentzia-kodea		
1.1.2	Artxiboko sailkapen-koadroko kodea		
1.1.3	Indarrean dagoen izena	Eguneko zentroan sartzeko eskaera, mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzat eta desgaitasuna dutenentzat, eta Eguneko zentroko errehabilitazio psikosozialeko eskaera, gaixotasun mentala dutenentzat	
1.1.4	Aurreko izena / beste izen batzuk		
1.1.5	Definizioa/deskribapena	Eguneko zentroko zerbitzuak arreta integrala eskaintzen du egunez, diziplina anitzeko talde batek egindako jarduketen multzo antolatu eta koordinatu baten bidez, artatutako pertsonen garapena errazteko, eta gaikuntza-arreta integrala emateko, ahal den neurrian, haien garapen pertsonalera, autonomiaren sustapenera eta gizarteratzera bideratua.	
1.1.6	Egilearen edo egileen izena	Erakundea: Oiartzungo Udala Arloa: Gizarte Zerbitzuak Saila: Gizarte Zerbitzuak Zerbitzua: Unitatea: Unitate teknikoa:	
1.1.7	Serie baten zatia	Bai:	Ez: X

1.2 Jatorria eta sortze- eta iraungitze-data

Organismoa	Administrazio-unitatea / Funtzioa	Hasierako data	Amaierako data
Toki-administrazioa	Gizarte Zerbitzuak	2003	

1.3 Lege-esparrua

1.3.1 Orokorra

Maila	Zenbakia	Izenburua	Xedapenaren data		Argitalpenaren
FA	63/1989	eskualdeei buruzkoa	1989/11/20	ALHAO, 142.	1989/12/11
FA	11/1995	Arabako Lurralde Historikoko Herri-batzarrei buruzkoa	1995/03/20	ALHAO, 038.	1995/03/31
FA	3/95	Bizkaiko udalez gaindiko eremuko erakundeak araupetzekoa	1995/03/30	BAO, 073. zk.	1995/04/18
FD	20/2002	Gipuzkoako adineko pertsona ezinduentzako lekuak eskatu eta emateko arauak ematen dituena.	2002/07/01	GAO, 84. zk.	2002/05/08

FD	43/2006	Gipuzkoako adineko pertsona ezinduentzako lekuak eskatu eta emateko arauak ematen dituen apirilaren 30eko 20/2002 FD aldatzen duena	2006/10/10	GAO, 201. zk.	2006/10/23
FA	6/2007	Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituena	2007/04/10	GAO, 078. zk.	2007/04/23
FD	7/2015	Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonak egoitza zerbitzuetan eta eguneko zentroetan sartzeko araubidea arautzen duena	2015/03/24	GAO, 59. zk.	2015/03/30
FD	15/2015	Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren erregimena arautzekoa	2015/08/01	GAO, 116. zk.	2015/06/22
FD	12/2016	Aldatzen duena 2015eko ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren erregimena arautzekoa.	2016/05/24	GAO, 106. zk.	2016/06/06
FD	**30/2018**	**Zerbitzuen erabiltzaileen gehieneko ekarpen ekonomikoak onartzen dituena eta aldatzen duena ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren erregimena arautzekoa.**	**2018/12/18**	**GAO, 250. zk.**	**2018/12/31**

II.- EZAUGARRIAK

2.1 Ezaugarri fisikoak eta orokorrak

2.1.1	Euskarria	Papera / Elektronikoa
2.1.2	Deskribapen-maila	Seriea
2.1.3	Kopiarik badagoen beste euskarri batzuetan	
2.1.4	Urtean zenbat handituko den (balioespena)	
2.1.5	Seriearen bolumena	
2.1.6	Ordenatzeko irizpideak	Kronologikoa
2.1.7	Seriearen hasierako data	2003
2.1.8	Seriearen amaierako data	
2.1.9	Ale-kopurua eta non dauden	Artxiboa, 30 espediente

2.2 Izapidetze-prozedura

2.2.1	**Espedientea osatzen duten dokumentuak**
	- Instantzia edo eskabidea, eredu normalizatuan, eta horretaz gain: - Eskatzailearen NANaren fotokopia, edo haren nortasuna frogatzeko balio duen beste agiri batena, eta legezko ordezkariaren edo egitatezko zaintza duen pertsonaren NANarena ere bai, halakorik egonez gero. - Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren pentsioaren ziurtagiria, beste pertsona eta diru-sarrera batzuei buruz.

- Txosten mediko eguneratua, diagnostikoa eta tratamenduak adierazten dituena.
- Banku-kontuaren titulartasuna

2.2.2 Administrazio-prozedura

Eskabidea eskatzailearen erroldako bizilekuari dagokion oinarrizko gizarte-zerbitzuetan aurkeztuko da.
Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza eta errehabilitazio psikosozialeko zentroetan sartzeko, eskaera Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren osasun mentaleko zentroetan ere aurkeztu ahal izango da.
Hauek dute eskabidea aurkezteko legitimazioa:

- Zuzenean, baliabideetako bat eskuratzeko interesa duen pertsonak berak.
- Haren legezko ordezkaritza duenak. Borondatezko ordezkaritza edo izatezko zaintza dutenak.

Salbuespenez, eta eskabidea oinarrizko gizarte-zerbitzuetan izapidetu ezin denean, Gizarte Politikako Departamentuan egin ahal izango da.
Udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuek, eskaera-espedientea egiteko, diagnostiko sozial bat egingo dute, egoera eta baliabidearen komenigarritasuna ebaluatzeko.

Udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuak espedientea izapidetzen hasiko dira, eta Gizarte Politikako Departamentuak egingo du egiaztapen teknikoa eta, hala badagokio, zuzendu egingo du.
Gizarte Politikako Departamentuari dagokio eskatutako baliabideen beharra eta egokitasuna haztatzeko aplikatu behar diren balorazio-irizpide teknikoak ezartzea, kontuan izanda eskatzailearen inguruabar pertsonal, familiar eta/edo sozialak.
Halaber, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari dagokie zerbitzu soziosanitarioak eskuratzeko aplikatu behar diren balorazio-irizpideak ezartzea.
Espedientea baloratu ondoren, zerbitzu bakoitzerako ezarritako organo eskudunak ebazpen-proposamen bat aurkeztuko dio Gizarte Politikako Departamentuko zuzendaritza eskudunari.
Espedientearen balorazioa egin eta, hala badagokio, nahitaezko txostenak egin ondoren, eskatutako errekurtsoaren izaeragatik eskumena duen zuzendaritzak dagokion ebazpena emango du.
Ebazpena hiru hilabeteko epean eman eta jakinarazi beharko zaio eskatzaileari, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan eskabidea behar bezala beteta dagoen datatik zenbatzen hasita.
Ebazpenak, gutxienez, eduki hau izango du:

- Eskatutako zerbitzua eman edo ukatu egin den adieraziko du.
- Ebazpena zerbitzua ematekoa bada, adieraziko du pertsona itxaron-zerrendan sartuko dela, plaza esleitzeko.
- Ebazpena ukatzekoa bada, horren arrazoia edo arrazoiak adieraziko ditu.

Ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko hiru hilabeteko epea igarota, ebazpen espresurik eman ez bada, sartzeko eskaera ukatutzat joko da administrazio-isiltasunez, nahiz eta administrazioak ebazpena emateko legezko betebeharra duen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.1 artikuluak ezarritakoaren arabera.

Geroago, zentroan sartzea dagokionean, Gizarte Politikako Departamentuak zentroan sartzeko ebazpena emango du. Ebazpen horretan adieraziko da zer zentrotan sartuko den, zer datatan, eta zer diru-ekarpen egin behar duen eskatzaileak. Zenbateko hori mendekotasunari, desgaitasunari eta nahasmendu mentalari arreta eskaintzeko zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa arautzen duen indarreko foru-araudiaren araberakoa izango da.
Ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko foru-diputatuari.

2.3 <u>Beste dokumentu batzuekiko lotura</u>

2.3.1	Aurreko serieak	Ez
2.3.2	Beheragoko serieak	Ez
2.3.3	Lotutako serieak	-Mendekotasunaren balorazioa RAI -Desgaitasunaren balorazioa
2.3.4	Bilduma-dokumentuak	Ez

III. BALORAZIOA

3. Balioak

3.1.	Administratiboa	Ez
3.2	Legezkoa/juridikoa	Ez
3.3	Zerga-alorrekoa	Ez
3.4	Informatiboa	Ez
3.5	Historikoa	Ez

IV. HAUTAKETA

4.1 Hautaketa-proposamena

Kontserbazio iraunkorra	
Guztiz ezabatzea	Bai, espedientea ixten denetik 6 urtera, bulegoko artxiboan egoteko denbora amaitu delako. Espedienteak bizikidetza-unitateka ordenatuta badaude eta garbitzea erabakitzen bada, banakatu egin beharko dira, lehendabizi, serie horri dagozkion espedienteak.
Zati batean ezabatzea	

4.2 Laginketa-motaren proposamena

Hautakorra	
Ausazkoa	
Mistoa	
Probabilistikoa	
Beste batzuk	

4.3 Transferentzia-epeak

Artxibo nagusira: epea eta justifikazioa	
Tarteko artxibora / artxibo historikora: epea eta justifikazioa	

V. SARBIDEA

5.1	Askea	
5.2	Mugatua	Bai, DPBLO
5.3	Epeak	
5.4	Erreprodukzio-baldintzak	
5.5	Dokumentuen hizkuntza	Gaztelania/Euskara
5.6	Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak	
5.7	Deskribapen-tresnak	
5.8	Iruzkinak	

VI.- OHARRAK

6.1	Oharrak	
6.2	Kudeatzailearentzako gomendioak	Dokumentu-serie honetan, Udalak onuradunaren eta Aldundiaren arteko bitartekari gisa esku hartzen du, izapidearekin lotutako dokumentazioa bidaltzeko eta sor daitezkeen aldaketak jakinarazteko, eta Aldundiaren eskumena da espedientea ebaztea. Udalean gordetzen diren dokumentuak jatorrizkoaren kopiak dira

		eta osatu gabe daude, ez baitute izapide osoa jasotzen.

VII- KONTROL-ARLOA / OHARREN ARLOA

Azterketaren arduraduna eta organismoaren izena	Almudena Coronado Letellier (Ereiten SL)
Landa-lana egin den artxiboa/k	Oiartzungo Udal Artxiboa
Aztertutako aldien muturreko datak	
Azterketaren data	2016/06/22
Azterketaren berrikuste-data	
DOBAUBAren onarpen-data	2017/03/06
EHAAko argitaratze-data	2017/04/11
Oharrak	